




Zerbitzuen negozio zifra %14,2 handitu zen

Zerbitzuen negozio zifra
Urte bakoitzeko urria. Indizea




Iturria: INE.

Urrian, zerbitzuen negozio zifrak %14,2 egin zuen gora EAEn urte arteko tasan. Tasa hori bat dator hirugarren hiruhilekoan erregistratutako batez bestekoarekin; beraz, estatistikak egonkortasun nabarmena duela ulertu behar da. Beste aldetik, sektoreko enplegua %1,2 hazi zen aurreko urteko datuaren aldean.

Industriaren negozio zifra %21,1 gehitu zen

Industriaren negozio zifra
Urte bakoitzeko urria. Indizea



Iturria: INE.


INEk argitaratu duenez, **EAeko industriaren negozio zifra %21,1 igo zen urrian, iazko datuarekin alderatuta.** Aldakuntza tasa hori hirugarren hiruhilekoko batez bestekotik oso gertu dago (%22,9). Orobat, indizeak aurten lortutako maila serie historiko osoko altuena da.



Azarora arte, 6 milioi gaualdi baino gehiago

Hoteletan igarotako gaualdiak

Urtarriletik azarora bitartean metatuta. Mila




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako informazioaren arabera, **azarora arte sei milioi gaualdi baino gehiago zenbatu ziren EAEko hotel establezimenduetan**. Serie historiko osoko kopururik handiena da hori, eta pandemia hasi aurreko urteetan lortutako baliokak gainditzen ditu.

Industriako prezioen moteltzeak jarraitzen du

Industriako prezioen indizea (IPRI)

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Industriako prezioek %17,8 egin zuten gora azaroan urte arteko tasan, Eustatek jakitera eman duenez. Horrek esan nahi du ekainean hasitako igoerak apaltzeko joerak jarraipena duela. Energiaren merkatzeari oso nabarmena izan da, baina atal horren urte arteko tasa %38,1 da oraindik.